Barkatuak : Ez falta denik edo bakaturik
Excusés : Pas d’absents ou excusés

| | |
|---|---|
| **<u>1. Accueil du Conseil par le Maire sortant.</u>**<br>Alain DUBOIS, doyen d’âge, accueille le nouveau Conseil Municipal élu le 15 Mars 2020 par un mot de bienvenue après ces deux mois difficiles dus à la crise sanitaire.<br>Il explique l’ambiance et les principes de travail souhaités et demande une présence assidue aux réunions. | **1. Kontseilu berriaren harrera auzapezaren eskutik**<br>Alain DUBOIS, mahain inguruko dekanoak, 2020ko martxoaren 15an hautatuko kontseilu berriari ongi etorria egiten dio, bi hilabete berezi pasatu ondoren. Bere lehen hitzak izan dira lan egiteko manerak eta giroa errespetatzea, bilkuretan parte hartzea ezinbestekoa delarik. |
| **<u>2. Désignation d’une secrétaire et de deux assesseurs.</u>**<br>Armelle OXARANGO est désignée secrétaire et Michel SIMON et Lorraine AUCHOBERRY sont désignés assesseurs pour les élections qui vont suivre, les trois étant volontaires pour ces postes. | **2. <u>Idazkari baten eta bi laguntzaileren izendatzea</u>**<br><br>Armelle OXARANGO izendatua izan da lehen kontseilu hunen idazkaria, Michel SIMON eta Lorraine AUCHOBERRY laguntzaile izendatua izan direlarik. Postu hauek nahitara hartu dituzte ondoko hauteskundeendako. |
| **<u>3. Élection du Maire.</u>**<br>Candidat : Alain DUBOIS<br>Élu à l’unanimité.<br><br>Le nombre d’adjoints pouvant aller jusqu’à quatre pour notre commune, l’assemblée décide à l’unanimité d’élire trois adjoints, des délégations supplémentaires pouvant être données par le Maire à des conseillers municipaux. | **3. <u>Auzapezaren hauteskundea</u>**<br>Hautagaia : Alain DUBOIS<br>Aho batez hautatua.<br><br>Gure herriak ahalmena badu lau auzapezorde izendatzea, bainan mahain inguruko guziak adostu dira aitzineko kargualdian bezala hiru auzapezorde izanen zirela, jakinez delegazio gehigarri batzuk emaiten ahal direla hautetsieri. |
| **<u>4. Élection des adjoints au Maire.</u>**<br>- Premier adjoint<br>Candidat : Dominique CLAVERIE<br>Élu à l’unanimité.<br>- Deuxième adjoint<br>Candidate : Lorraine AUCHOBERRY<br>Élue à l’unanimité.<br>- Troisième adjoint<br>Candidat : Beñat SAINT-ESTEBEN<br>Élu à l’unanimité. | **4. <u>Auzapezordeen hauteskundeak</u>**<br>- Lehen auzapezordea<br>Hautagaia : Dominique CLAVERIE<br>Aho batez hautatua.<br>- Bigarren auzapezordea<br>Hautagaia : Lorraine AUCHOBERRY<br>Aho batez hautatua.<br>- Hirugarren auzapezordea<br>Hautagaia : Beñat SAINT-ESTEBEN<br>Aho batez hautatua |
| **<u>5. Délégation du Maire aux adjoints et Conseillers Municipaux.</u>**<br>Dominique CLAVERIE :<br>- Signature des bordereaux récapitulatifs de mandats | **<u>5. Auzapezaordeen eta hautesien delegazioak</u>**<br><br>Dominique CLAVERIE<br>- Kargualdiko edo izendatze laburbilpen orrien |

| | |
|---|---|
| ou de titres.<br>- Dossiers concernant la vie associative, la culture, la communication, le numérique et l'informatique.<br><br>Lorraine AUCHOBERRY :<br>- Signature des bordereaux récapitulatifs de mandats ou de titres.<br>- Les affaires sociales et éducatives.<br>- Gestion du Centre de loisirs intercommunal LEMALU.<br>- La préparation budgétaire du budget principal et de ses annexes.<br><br>Beñat SAINT-ESTEBEN :<br>- Les affaires économiques et agricoles.<br><br>Michel SIMON :<br>- Suivi du personnel communal.<br>- Gestion des locations des appartements communaux.<br>- Suivi des travaux annexes.<br><br>Bixente UHALDE :<br>- Environnement et Urbanisme.<br>- Les infrastructures de la Commune.<br><br>**<u>6. Délégation de pouvoir du Conseil Municipal au Maire.</u>**<br>Le Maire propose de pouvoir mener les actions suivantes pendant la durée du mandat, ceci doit faire l'objet d'une délégation de pouvoir du Conseil Municipal au Maire :<br>- Prendre toute décision concernant la préparation, la passation, l'exécution et le règlement de marchés et des services qui peuvent réglementairement être passés de gré à gré en raison de leur montant, lorsque les crédits sont prévus au budget.<br>- Procéder à la réalisation des emprunts destinés au financement des investissements prévus par le budget et de passer à cet effet les actes nécessaires.<br>- Passer les contrats d'assurance.<br>- Créer les régies comptables nécessaires au fonctionnement des services municipaux.<br>- Prononcer la délivrance et la reprise des | izenpedura.<br>- Elkarteen bizia, kultura, komunikazioa, numerikoa eta informatika dagozkien txostenak.<br><br>Lorraine AUCHOBERRY :<br>- Kargualdiko edo izendatze laburbilpen orrien izenpedura.<br>- Soziala eta hazkunde kontuak.<br>- Herriarteko LEMALU asialdi zentroaren kudeaketa<br>- Aurrekontuaren eta bere osagarrien antolaketa.<br><br>Beñat SAINT-ESTEBEN :<br>- Ekonomiako eta laborantzako kontuak.<br><br>Michel SIMON :<br>- Herriko langileen segipena.<br>- Herriko apartamentuen segipena.<br>- Herriko lanen segipena.<br><br>Bixente UHALDE :<br>- Ingurumena eta hirigintza.<br>- Herriko azpiegiturak.<br><br>**<u>6.Herriko kontseiluren delegazioa auzapezari.</u>**<br><br>Kargualdi osoko denboran, auzapezak proposatzen du ondoko ekintzen eramatea. Azken hauek egiten ahal dira Herriko Kontseiluak delegazioa emanik :<br><br>- Erabaki guziak hartzea merkatu publikoen eta serbitsuen prestakuntzarako, manaketarako eta eginarazteko. Azken hauek araudien arabera posible direlarik pasatzea zuzenki haien prezioaren arabera eta aurrekontuan agertzen baldin badira.<br>- Aurrekontuan agertzen diren inbertsioetarako beharrezkoak diren maileguak egitea eta ondorioz doazkion beharrezko ekintza guzien egitea.<br>- Asegurantza kontratuak egitea.<br>- Herriko serbitsu publikoen funtzionamenduarentzat beharrezkoak diren kontulari konpainiak sortzea.<br>- Hilerrietako kontzesioaren emaitearen et berriz |

| | |
|---|---|
| concessions dans les cimetières.<br>- Accepter les dons et legs qui ne sont grevés ni de conditions ni de charges.<br>- Décider l'aliénation de gré à gré de biens mobiliers d'une valeur jusqu'à 4600 €.<br>- Fixer les rémunérations et régler les frais et honoraires des avocats, notaires, avoués, huissiers de justice et experts.<br>- Fixer les reprises d'alignement en application d'un document d'urbanisme.<br>- Intenter au nom de la Commune les actions en justice ou défendre la Commune dans les actions intentées contre elle.<br>- Donner, en application de l'article L.324-1 du code de l'urbanisme, l'avis de la commune préalablement aux opérations menées par un établissement public foncier local.<br>- Signer au nom de la commune, les actes notariés ou en la forme administrative concernant l'ouverture et le classement des voies communales, ainsi que toute acquisition ou aliénation de biens, terrains bâtis ou non que la commune déciderait de réaliser.<br>- Réaliser les lignes de trésorerie sur la base d'un montant maximum de 100.000 €. | hartzearen erraitea.<br>- Baldintza gabeko eta kargu gabeko emaitzak onartzea.<br>- Ontasun higigarrien besterentzea, azken hauen balorea 4600€ baino apalago izan behar delarik.<br>- Abokatu, notario, uxer eta adituen ordainsaria hautatzea eta pagatzea.<br><br>- Hirigintza dokumentu baten arabera, arralerrokatze baten finkatzea.<br>- Herriaren izenean auziperatzea edota herria defendatzea auziperatua baldin bada.<br><br>- Hirigintza kodeko L.321-1 artikuluaren arabera, herriaren iritzia emaitea lur funtsa konpainia publiko batek operazioa egin aitzin.<br><br>- Herriaren izenean izenpetzea : notario aktak edo administratibo forman herriko bideen idekitzea eta sailkatzea, ontasun guziak ardiestea edo besterentzea, lur eraikiak edo ez eraikiak nun herriak hautatuko lukeen eraikitzea.<br>- Diruzaintza lerroak sortzea, 100 000€ gainditu gabe. |
| En cas d'absence du Maire, ces délégations sont attribuées au premier adjoint.<br>En cas d'absence du Maire et du premier adjoint, ces délégations sont attribuées au deuxième adjoint.<br>En cas d'absence du Maire, du premier adjoint et du deuxième adjoint, ces délégations sont attribuées au troisième adjoint.<br>Accord de l'assemblée à l'unanimité. | Auzapezaren eskasean, lehen auzapezordeari emanak dira delegazio hauek.<br>Auzapezaren eta lehen auzapezaordearen eskasean, bigarren auzapezordeari emanak dira delegazio hauek.<br>Auzapezaren, lehen auzapezordearen eta bigarren auzapezrodearen eskasean, hirugarren auzapezrodeari emanak dira delegazio hauek.<br>Aho batez onartua. |
| **7. Délégation de pouvoir du Conseil Municipal au Maire en matière d'emprunt.**<br>Une délibération spéciale faisant état de l'endettement de la Commune, doit être prise pour ce pouvoir.<br>Au 1er Janvier 2020, l'encours de la dette de la Commune est de 469.459,64 €. Cette dette va s'éteindre en 2029.<br>Il y aura une échéance importante (162.760 €) en 2021 pour le remboursement d'un prêt relais réalisé pour l'aménagement de la zone artisanale d'Etxe | **7. Herriko kontseiluren delegazioa auzapezari maileguentzat.**<br>Herriko zorpetzearen egoera egiten duen deliberamendu berezi bat hartu behar da botere horrentzat.<br>2020ko urtarrilaren 1an, herriko zorpetzearen heina 469.459,64 €urotarat heltzen da. Zorpetze hau 2029 urtean bukatuko da.<br>2021 urtean ordainketa handi bat (162.760 €) eginen da, Etxe Handiko ofiziale eremuaren antolaketa egiteko mailegu labur baten ordaintzeko. Ordainketa hau orekatua da enpreseri saldutako lur eremuen bidez. |

| | |
|---|---|
| Handia et remboursé par le produit de la vente des terrains aux entreprises.<br>Cette délégation est attribué dans les conditions suivantes :<br>- Montant annuel : dans les limites des crédits d'emprunts inscrits au budget de l'exercice.<br>- Amortissement : amortissement constant du capital, échéances constantes, amortissement in fine, différé d'amortissement.<br>- Types d'emprunts : taux fixe, taux fixe bonifié, taux variable (indices T4M, TAM, EONIA, TMO, TME, EURIBOR).<br>- Possibilité de tirages échelonnés dans le temps, de remboursements anticipés partiels ou total et/ou de consolidation.<br>- Réaménagement de la dette : faculté de passer de taux fixe à taux variable ou inversement, faculté de modifier une ou plusieurs fois l'index relatif au calcul du taux d'intérêt, possibilité d'allonger ou de réduire la durée du prêt, faculté de modifier la périodicité et le profil de remboursement.<br>Accord du Conseil à l'unanimité. | Delegazio hau emana da ondoko baldintzekin :<br>- Urteko zenbatekoa : aurrekontuan agertzen diren maileguen arabera.<br>- Zor kitatzea : kapitalaren zor kitatze konstantea, epe konstatea, zor kitatzea in fine, zor kitatzea gibelkatzea.<br>- Mailegu motak : tasa finkoa, tasa finko hobetua, tasa mugikorra (T4M, TAM, EONIA, TMO, TME, EURIBOR indizeak).<br>- Pagatzeen mailakatzea denboran, aitzin ordaintzea osoki edo partez edo azkartzeko.<br>- Zorraren berantolatzea : tasa finko batetik tasa mugikorrera pasatzea edo alderantzizkoa, interes tasa kalkulatzeko indizea aldi batez edo gehigago, maileguaren denbora luzatzea edo laburtzea, ordainketaren aldizkatzearen aldatzea.<br>Aho batez onartua. |
| **8. Droit de préemption.**<br>Le droit de préemption est un outil d'urbanisme permettant à la collectivité d'être prioritaire sur l'acquisition d'un bien foncier ou immobilier si celui-ci est en vente .<br>L'urbanisme est une compétence de la Communauté d'Agglomération, mais si la Commune le souhaite, elle peut prendre une délibération lui permettant d'exercer ce droit de préemption sur son territoire.<br>Accord du Conseil à l'unanimité pour prendre cette délibération. | **8. Erosteko lehentasunaren eskubidea**<br>Erosteko lehentasunaren eskubidea hirigintzako tresna bat da. Hunen bidez herriak lehentasuna du herrian saltzen du lur funtsa baten gainean edo eraikin baten gainean.<br>Hirigintza Euskal Hirigune Elkarkogoko gaitasun bat da, bainan herriak nahi badu, erosteko lehentasunaren gaitasuna atxikitzen ahal du bere herrian.<br>Aho batez onartua deliberazio hunen hartzeko. |
| **9. Taxe foncière.**<br>Les taux de ces taxes sont actuellement de 8,90 % (bâti) et 26,74 % (non bâti).<br>Nous allons les passer à 9,40 % (bâti) et 27,24 % (non bâti).<br><br>Accord du Conseil à l'unanimité pour le passer à 9,40 %. | **9. Lur zerga**<br>Zerga hunen tasa %8,90-koa gaur egun.<br>Herriko kontseiluak aho batez onartzen du tasa hunen goititzea %8,95-tara. |
| **10. Participation à des commissions** | **10. Herriarteko komisioetan parte hartzea**<br>Beharrezkoa da ondoko taldeen ordezkariak izendatzea :<br>- SIVU Gure Eskola :<br>Jean-Michel GOUTENÈGRE |

**intercommunales.**
Il est urgent de désigner les membres pour les groupements suivants :
- SIVU Gure Eskola :
  Jean-Michel GOUTENÈGRE
  Céline JORAJURIA
  Armelle OXARANGO
- Centre de loisirs LEMALU :
  Lorraine AUCHOBERRY
  Laurence INDART
  Myriam RECONDO

Accord du Conseil à l'unanimité.

**11. Questions diverses.**

- Dépenses dues au COVID19 : 3910 € dont 3000 € pour les masques et 910 € pour les produits désinfectants, gels et lingettes ainsi que deux thermomètres pour l'ecole.
En principe, nous aurons 50 % d'aide pour les masques par l'État.
- Jour habituel de réunion : le lundi
La prochaine réunion aura lieu le 8 juin à 20h30 pour des explications sur le budget notamment.
- Un projet est en cours de réalisation, il s'agit du Plan Communal de Sauvegarde qui est un document obligatoire pour les Communes.
La CAPB a mandaté la société PREDICT, filiale de Météo France qui chaque année, aide 40 communes pour ce projet.
Il s'agit de déterminer les actions, l'organisation de la Commune en cas de catastrophe naturelle.
Il faut notamment mettre en place 3 cellules de 2 ou 3 personnes (soit 6 à 9 personnes) qui seront responsables si un tel évènement se produit.
De plus amples explications seront données mais pour la prochaine réunion, ce serait bien d'inscrire des noms pour chaque cellule.

Cellule technique (Assurer la reconnaissance terrain, Alerter et mettre en sûreté les personnes, Mobiliser les moyens matériels communaux).

Cellule communication (Assurer l'interface entre la commune et la population, Alerter les personnes).

Céline JORAJURIA
Armelle OXARANGO
- Centre de loisirs LEMALU :
  Lorraine AUCHOBERRY
  Laurence INDART
  Myriam RECONDO

Aho batez onartua.

**11. Beste galderak**

- COVID19 eragindako gastuak : 3910 €, 3000 € maskentzat eta 910 € desinfektatzaile, gel eta oihalentzat. Bi termometro eskolarentzat. Dagokionez, Estatuarengandik %50eko laguntza bat eskuratuko dugu maskentzat.
- Usaiako bilkura eguna : astelehena
  Ondoko bilkura 2020ko ekainaren 8an iraganen da, arratseko 8k30tan, aurrekontuaren azalpenarentzat bereziki.
- Herriko Babeste Plana muntatzen ari da.
  Dokumentu administratibo hau legezkoa eta beharrezkoa da herri guzientzat.
  EHEk, Météo France-en adar bat den PREDICT sozietatea lanarazten du, urtero laguntzeko 40 herri Herriko Babeste Plana muntatzen.
  Plana hunek hondamen naturala batetan nola antolatu behar den herrian azaltzen du. Plana hunen muntatzeko, 3 talde sortu behar dira, talde bakotxa 2 edo 3 kidez osatu behar delarik. Talde hauek herriaren antolaketaren arduradunak izanen dira hondamendi naturala bat gertatzen bada. Helduden bilkurako untsa litaike pertsona batzu interestuak balitz.

  Talde teknikoa (Tokiaren ezagutza ona, Abisua eman eta pertsonak leku abestuetan eman, Herriko ahalak antolatu)

  Komunikazio taldea (Segurtatu herria eta herritarren arteko komunikazioa, herritarreri abisua eman)

  Harrera taldea (Harrera zentroa(k) ideki, Kaltetuen harrera eta ongi izaitea segurtatu)

| | |
|---|---|
| Cellule Accueil (Ouvrir le(s) centre(s) d'accueil, Assurer l'accueil et la prise en charge des sinistrés) | |